

# #11

# NON DAGO MERIDIANO? GUILLERMO DE TORRE ETA AGUSTÍ CALVET «GAZIEL»: ELKARRIZKETA ZAPUZTUA

**Antoni Martí Monterde**

*Universitat de Barcelona*

Ilustrazioa || Beatriz Simón

Itzulpena || Belen Pikabea

Artikulua || Enkargatuta | Argitaratuta: 07/2014

Lizentzia || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkataritzarako - lan eratorririk gabe



**Laburpena** || 1927ko apirilaren 15ean, «Madrid, meridiano intelectual de Hispanoamérica» manifestua argitaratzearekin batera, *La Gaceta Literaria*-k XX. mendean testuinguru iberoamerikarrean izan den eztabaida kultural garrantzitsuenetakoa piztu zuen. Maiz aztertu izan da eztabaida hark literatura amerikarretarako izan duen garrantzia, baina inoiz ez zaio arreta handiegirik eskaini Guillermo de Torreren manifestuak literatura iberiarretan izan zuen harrera interpretatzeari. Artikulu honetan, idazle katalan nagusietako batek, hots, Agustí Calvet «Gaziel»-ek, esandakoa gogoratuko dugu, eztabaida hark literatura katalanari ere zenbateraino eragiten zion erakusten baitu.

**Gako-hitzak** || Guillermo de Torre | Agustí Calvet «Gaziel» | «Meridiano intelectual»-aren eztabaida | Iberismo kulturala | Hiriburu kulturalak | Literatura katalana

**Abstract** || On April 15, 1927 the publication of the manifest “Madrid, meridiano intelectual de Hispanoamérica” in *La Gaceta Literaria* triggered one of the most significant cultural controversies to affect the Ibero-American context in the 20<sup>th</sup> century. While the importance of this controversy for Latin American literature has been frequently studied, the interpretation of the reception of Guillermo de Torre’s manifest in the different Iberian literatures have not been similarly considered to date. This article recovers the intervention of one of the main Catalan writers, Agustí Calvet “Gaziel”, to account for the extent to which the said controversy also affected Catalan literature.

**Keywords** || Guillermo de Torre | Agustí Calvet “Gaziel” | Controversy over “Meridiano intelectual” | Cultural Iberism | Cultural capitals

---

1927ko apirilaren 15ean, «Madrid, meridiano intelectual de Hispanoamérica» manifestua argitaratzearekin batera, *La Gaceta Literaria*-k XX. mendean testuinguru iberoamerikarrean izan den eztabaida kultural garrantzitsuenetakoa piztu zuen. Anonimoki argitaratu bazen ere, editoriala Guillermo de Torrek idatzi zuen (gerora, argi eta garbi adierazi zuen egilea bera zela), Ernesto Giménez Caballerok sustatuta eta José Ortega y Gassetek inspiratuta. Editorial hartatik abiatuta, Atlantikoaz haraindiko eztabaida sortu zen, espainieraren esparruko hegemonia sinbolikoaren auzia mahaigaineratzeaz gain, Europan eragina zuten gai ugari ere jasotzen zituen.

Manifestu harekiko erreakzio amerikarrak oparo dokumentatu dira (Alemany Bay 1998), baita komentatu ere (Pérez Barchino 1996, Manzoni 1996, Falcón 2010). Logikoa denez, Atlantiko aldetik berehala iritsi ziren erantzun erabatekoak, batzuk beste batzuk baino bikainagoak, baina beti kontzienteki ulertuz iraganeko berezko egoera amaitzeaz zela eta egoera hori ezin zela espainierazko letra amerikarren orduko eta, are gutxiago, etorkizuneko egoera gisa onartu. Horregatik, eztabaida hau beste hainbat eztabaidaren testuinguruan ulertu behar da; hain zuzen ere, Jorge Luis Borgesek «El idioma de los argentinos» (1927) saiakeraren bidez sorrarazitakoan, Américo Castrok eta Amado Alonsok esandakoaren ondorioz argentinarren hizkuntzari buruz piztutakoan eta Pedro Henríquez Ureñaren *Seis ensayos en busca de nuestra expresión* (1928) saiakerak eragindakoa. Borgesek beraren «El escritor argentino y la tradición» (1951) handik gutxira koinatu izango zuen Guillermo de Torrek 1927an sortutako auziaren erantzun berantiar eta, beharbada, behin betiko gisa ere har daiteke.

Alabaina, eztabaida hartan Iberiar penintsularen gainerakotik emandako erantzunak eta egindako iruzkinak ez dira behar bezala dokumentatu, ezta zer ondorio izan dituzten jakiteko aztertu ere, bereziki askotariko hizkuntza eta literaturen lekuari dagokionez. Hori bereziki agerikoa da ikuspegi katalanetik, aintzat hartu ohi ez diren eztabaidaren zenbait xehetasun baitaude. Hala ere, nahikoa da editorial hartako hasierako hitzak gogora ekartzea xehetasun horiek ezin direla saihestu egiaztatzeko:

Al mismo tiempo que en el «Diálogo de las lenguas» va precisándose nuestro criterio, con referencia a Cataluña y a las demás lenguas peninsulares, interesa especialmente a *La Gaceta Literaria* fijar y delimitar su actitud respecto al ángulo específicamente americano de nuestro objetivo triangular (s.f. [Torre] 1927: 1).

Editorial-egile anonimoak –orduan, behintzat, anonimoa zenak– zioenez, aldizkariak (azpigoiburu gisa *Ibérica*, *americana*, *internacional* zuenak) Iberiar penintsulako hainbat hizkuntzatan idatzitako artikuluak argitaratuko zituen, hots, gaztelaniaz,

katalanez, galegoz eta portugesez idatzitakoak, baita euskaraz idatzitakoak ere, eta halaxe egin zuen. Katalanez, adibidez, August Pi i Sunyerren artikulua bat (A. Pi Suñerrek sinatuta) argitaratu zuen lehenengo alean: «Scientistes o científics?». Portugesez, berriz, orrialde berean João de Castro Osórioaren «A esperança Lusíada e la fraternidade ibérica» agertu zen. Areago, 1929ko urtarrileko 49. aletik aurrera, aldizkariak atal finkoa izan zuen, «Gaceta catalana» deiturikoa, kolaboratzaile katalan, valentziar eta balearren artikulua biltzen zituena (Mosquera 1996). Baina ekimen horrek ere eztabaida piztu zuen. 1927ko martxoan, «El diálogo de las lenguas» izeneko editorialean, Francesc Trabalekin ere hitz egin zuten katalanezko testuak argitaratzeari buruz. Egiaz, *Grup de Sabadell*-ek elkarrizketa harekiko zuen mesfidantzak Francesc Cambó disimuluan baina ez ezkutuan egindako lana zuen oinarri, baita prebentzio ideologiko ugari ere, Italian faxismoa zabalduz zihoala eta Giménez Caballerok, besteak beste, Espainian ere hura ezarri nahi zuela ikusita<sup>1</sup>. Hertsiki Iberiar penintsulari dagokionez, testuinguru horretan aurkeztu zuten manifestua eta piztu zen eztabaida.

Horregatik, bereziki aipatzekoa da *petite querelle* hark Katalunian eragin zuen erreakzioa, beste ikuspegi bat eman baitzion eztabaidari, hiru arrazoirengatik: nazionala, kosmopolita eta iberiarra.

## 1. Rusiñoletik Casanovara

Manifestuko argumentu nagusien artean, Paris *latinité*-aren hiriburutzat zuen aldarrikapenaren aurka egin zuten, eta eragin hura geldiarazi behar zela agindu: «¡Basta ya, por tanto, de ese latinismo ambiguo y exclusivista! ¡Basta ya de tolerar pasivamente esa merma de nuestro prestigio, esa desviación constante de los intereses intelectuales hispanoamericanos hacia Francia!» (s.f. [Torre] 1927: 1). Guillermo de Torrek esan bezala, plano etnikoan Espainia ere barne hartzea zilegi zen arren, egiaz kanpo uzten zuen lehentasun kulturalari erreparatuta. Ondorioz, madrildarrak ondorengo aurka erreakzionatzeko dei egin zuen:

Frente a los excesos y errores del latinismo, frente al monopolio galo, frente a la gran imantación que ejerce París cerca de los intelectuales hispanoparlantes tratemos de polarizar su atención, reafirmando la valía de España y el nuevo estado de espíritu que aquí empieza a cristalizar en un hispanoamericanismo extraoficial y eficaz. Frente a la imantación desviada de París, señalemos en nuestra geografía espiritual a Madrid como el más certero punto meridiano, como la más auténtica línea de intersección entre América y España (s.f. [Torre] 1927: 1).

Ezin da oharkabean joan imantazio paristar hori literatura katalanari eta literaturaren eta garaikidetasunaren definizioari lotuta ere bazegoela XIX. mendearen amaieraz geroztik. Urte batzuk lehenago,

## OHARRAK

1 | Gogoan izan behar da *La Gaceta Literaria* Primo de Riveraren diktadura-aldi betean argitaratzen zela. Primo de Riverak tinko egiten zuen Espainiako aniztasun kulturalaren kontra, Giménez Caballerok ez bezala, ez, behintzat, une hartan. Giménez Caballeroren ekimenetako batzuk Madrilen 1927an bertan antolatu zen liburu katalanaren erakusketa edo idazle gaztelarrek 1930ean Kataluniara egindako bisita izan ziren; jarduera horien ondorioz argitaratu zen *Cataluña ante España* liburua. Bestalde, kontuan izan behar da Francesc Cambó ekimen horien guztien inguruan adierazitakoa: «No hay que decir que tanto la exposición como la revista fueron protegidos por mí, y, en gran parte, dirigidas por Estelrich» (Cambó, *Memorias*, gaztelaniazko itzulpena: H. Cambó, Madril, Alianza, 1987: 375. or.). Era berean, ez da alde batera utzi behar Giménez Caballeroren Kataluniarekiko pentsamoldeak izan zuen bilakaera *La Gaceta Literaria*-ren azken aleetan, *Trabalenguas sobre España* (1931) liburuan eta, bereziki, *Amor a Cataluña* (c1942) lanean, baina baita beste hainbat testu eta adierazpenetan ere; horiek guztiek zalantzan jartzen dute ekimen haien zintzotasuna.

---

garai hartan literatura espainiarrean nagusi ziren zenbait autoren (tartean, Juan Valerak) Ruben Darío bezalako idazle amerikarren kosmopolitismoa gaitzetsi zuten, baina baita katalanena ere, bereziki Montmartreko modernitatearekin bat egiteko zuten joera, internazionalismo deserrotutzat eta judutartzat jotakoa lehendabizi Valeraren eskutik eta, geroago, Pío Barojaren eskutik (Martí Monterde, 2014). Bai idazle amerikarrei bai katalanei egindako salaketa horiek, tokiz kanpo egon arren, ez ziren guztiz desegokiak; alderantziz, Daríok berak *España contemporánea*-n ere hauteman zuen denborazkotasun artistiko ezberdinaren emaitza ziren.

Hain zuzen ere, urte batzuk lehenago, Greenwich meridianoa finkatu eta gutxira, 1890ean *La Vanguardia*-n argitaratu ziren *Moulin de la Galette*-ko kroniketan, Santiago Rusiñolek honela ohartarazi zuen:

El molino no solo es el centinela del barrio, sino el centinela del mundo. Por él pasa el meridiano. Por su cúspide atraviesa ese meridiano de París, que consultan a todas horas del día los geógrafos de la tierra, y a todas horas de la noche los astrónomos que estudian otros mundos (Rusiñol 1894: 10).

Montmartreko kalean deskribapenari esker, leihoak aldi berean kalerantz eta lantegiaren barrualderantz zabalik daudela, egunero «artearen langileen» lanean loria artistikoa nola joaten edo etortzen den antzeman dezake. Lehenengo paseo horren ostean, nekearen eta urduritasunaren ondorioz, kronistari loak hartzea kostatzen zaio: «Quizás debido a esto no pudimos pegar los ojos, o quizás tuvo la culpa... ¡váyase a saber!... la influencia del meridiano que pasa y pesa sobre nosotros» (Rusiñol 1894: 13).

Horrenbestez, ez zen beharrezkoa Pascale Casanovak esango zuenari itzarotea; alegia, modernitatea, garai hartan, 2°20'14.025" ardatzean gertatzen zenak zedarritzen zuela. Hortaz, Guillermo de Torreren ez da menperatze sinbolikoa ikuspegi geokulturaletik ulertzeko modu horren inguruko lehenengo gogoeta. Hain zuzen ere, meridianoareneko metafora erabiltzea ia-ia topiko bihurtu zen 1884an hasi eta 1914ra arte luzatu ziren eztabaida geografikoen ondorioz –Greenwichen eta Parisen arteko polemika–. Santiago Rusiñolek eztabaida hura bere kronika kulturallean jaso baino ez zuen egin, eta beste egile askok ere hala egin zuten ondoren.

Toki komuna gorabehera, Bartzelona eta Paris lerrokatsetik abiatuta, kultura katalanean gertatu zen guztiak askoz ere lotura estuagoa du literatura frantsesarekin espainiarrarekin baino, nahiz eta eztabaida intelektuala, bereziki politikoa, idazle espainiarren artean sortu, auzi saihestezina eta erabakigarria izaki (ez, ordea, nagusia). Nazioaren kontua eztabaidetan agertu arren, Kataluniako tradizio literario garaikidea, bai katalanezkoa bai gaztelaniazkoa, letra frantsesetik etengabeko elkarrizketan finkatu izan da.

Bien bitartean, Guillermo de Torre Paris latinitatearen hiriburu gisa defendatzeko joeragatik zuen kezka proposamen bihurtu zen:

¿Qué vale más, qué prefieren los jóvenes espíritus de Hispanoamérica?  
¿Ser absorbidos bajo el hechizo de una fácil captación francesa, que llega hasta anular y neutralizar sus mejores virtudes nativas, dejándoles al margen de la auténtica vida nacional, o sentirse identificados con la atmósfera vital de España, que no rebaja y anula su personalidad, sino que más bien la exalta y potencia en sus mejores expresiones? (s.f. [Torre] 1927:1).

Esan daiteke, letra katalanen kasuan, urte batzuk lehenago egin zela aukeraketa, Europako modernitatearen esparruan Espainia aukeren artean ez zegoelako, besteak beste.

Amerikari dagokionez, proposamen horrek bazter utzi zituen Europako eta, areago, Ipar Amerikako hiri handiekin alderatuta Buenos Aires XX. mendeko hiriburu izateko ganorazko aukera bihurtu zuten ebidentzia demografiko, politiko, ekonomiko eta kulturalak. Kataluniaren kasuan, uko egin zitzaion Espainiako nazionalismo liberalaren ikuspegitik eremu literario eta politiko bakarra, erabat trinko eta koherentea, zen hartan inolako gailentasunik ez izateari. Manifestu haren arabera:

Nosotros siempre hemos tendido a considerar el área intelectual americana como una prolongación del área española. Y esto, no por un propósito anexionista reprobable, sino por el deseo de borrar fronteras, de no establecer distingos, de agrupar bajo un mismo común denominador de consideración idéntica toda la producción intelectual en la misma lengua; por el deseo de anular diferencias valoradoras, juzgando con el mismo espíritu personas y obras de aquende y allende el Atlántico (s.f. [Torre] 1927: 1).

Garai hartan beren burua «98ko bilobatzat» zutenek ezin onar zezaketen Atlantikoaren alde bateko eta besteko lanak literatura berean ez zeudela ikustea. Horrenbestez, Guillermo de Torreren kosmopolitismoak mende-amaierako kosmopolitismo frantsesaren antzeko muga kontzeptualak zituen, nahiz eta, argi eta garbi, egoera ezberdinetatik abiatu, helburu ezberdinak izan eta pentsamendu liberalaren ikuspuntutik espero zenaren inguruan ia kontrako definizioak izan (pentsamendu liberalak ez zuen tradizio sendorik Espainian, Frantzian ez bezala, eta, azkenean, porrot egin zuen). Bi kasuetan, baina bereziki Espainian, kontraesanean erori ziren, Torre bezala, kosmopolitismoaren itxurazko neutraltasuna irudikatu zuten egileak; haien arabera, dena barne hartzen zuen esparrua zen, banako, hizkuntza eta tradizio guztiak. Baina neutraltasun hori beren ikuspegiari aplikatzean, desagertu egiten zen, ez baitzeuden inola ere prest nazioarteko esparruan zuten zentraltasunari uko egiteko. Hori interpretatzeko gakoak funtsean nazionalak ziren, auziaren nazioartekotasuna bera ukatzeraino.

---

Ikuspegi horretatik, meridianoaren inguruko eztabaida, eta Guillermo de Torrek deskribatu zuen modua, Pascale Casanovak *République Mondiale des Lettres* lanean Greenwicheko meridiano literario gisa izendatu zuenagatik sortu ziren borroka literarioen adierazpena da. Ia ez dago alderik Casanovaren «París, hiri literario» eta Guillermo de Torreren «Madril, Hispanoamerikako meridiano intelektual» adierazpenen artean. Bi kasuetan, meridianoari esleitzen zaizkio nazioarteko gainerako esparru literarioan nagusi izan behar duten modernitatea eta denborazkotasun estetikoa. Bi kasuetan, egoera hori itxuraz estetikoa baino ez da, eta haren oinarri politikoak kontraesan nabarmenetan erorarazten ditu, abiapuntuko hipotesi inplizitua berretsiz; alegia, nazioarteko botere sinbolikoaren inguruan gatazka literarioa dagoela, kultura edo literatura bera baino areago, nagusitasun kulturalaren ondorioak kudeatzeko, eta gatazka horretan etengabe kosmopolitismo porrokatua ageri dela, Valery Larbaud bezalako bidez behin eta berriro errepikatutako topikoak jakintzat jotzeraino (hala ere, topiko horiek, hogeiko hamarkadan interesgarriak izan zitezkeen arren, XX. mendearen amaieran berretsi baino ez zuten egin historian zehar erreferentziaklasiko bihurtutako gaizki-ulertuen gaitasun arautzailea).

Bai Guillermo de Torrek (1927an) bai Pascale Casanovak (1999an) irizpide bat ezarri eta defendatu nahi izan zuten hiriburuen hiriburua edo meridianoa finkatzeko. Horrela, hiri literarioen sistema kudeatzeko garai hartan metatutako eta ezagutarazitako kapital sinbolikoa aintzat hartuko zen, oraina geoliterarioki antolatzeko beste edozein aukeraren aurrean argumentu eztabaidaezin eta ageriko gisa defendaturikoa. Hala, nazioartekotasun literarioaren erreferentzia saihestezin eta teleologiko bihurtu den aldi literario baten nortasuna da. Idazle frantsesaren aburuz:

De igual manera que la línea *ficticia*, denominada también «meridiano de origen», elegida arbitrariamente para la determinación de las longitudes, contribuye a organizar el mundo *real* y posibilita la medida de las distancias y la evaluación de las posiciones en la superficie del globo, así también lo que podríamos llamar el «meridiano de Greenwich literario» permite calcular la distancia hasta el centro de todos los que pertenecen al espacio literario. La distancia estética se mide, asimismo, en términos temporales: el meridiano de origen instituye el presente, es decir, es el orden de la creación literaria, la modernidad (Casanova 1999[2001]: 122-123).

Oso bistakoa da espazioaren eta denboraren arteko Casanovaren jolas hori mistifikaziotik abiatzen dela, eta Du Bellayrengan kokatzen du Parisen zentraltasunaren jatorri oraindik indartsua, literatura europarrean lehenengo, eta mendebaldekoan gero, literatura frantsesa berariaz aipatu gabe, nahiz eta iraultza-ondoko garaipen jakobinora arte hori hain agerikoa ez izan. Beste garai batean ere hori hala izan zen, baina ezer ez da betirako eta, Casanovaren

---

kasuan, hori hala izateko ahaleginek inertzia-kontua irudi dezakete; Torreren kasuan, berriz, bultzada-kontua, espazio literario oso baten zentraltasunari eta nagusitasun sinboliko baina,aldi berean, eraginkorrari buruzko pultsu bihurtzen dena. Bai Casanovarentzat bai Torrerenentzat, ordezeko aukera oro aberrazioa da, beren proposamenen iragazkiak halaberrez berresten duen legitimazio literarioa desitxuratzen duen desbideratzea. Horren haritik, bai literatura frantsesa bai, bereziki, espainiarra, bi eratako *literatura borrokalaria* dira, baina ez Casanovak berak adierazitako zentzuan nazionalismo literarioen internazionalari buruz gogoeta egitean (2011), desberdintasun estrukturalako eta menperatze sinbolikoko esparruan (nazionalismo horien artean daude, noski, aipatu bi literaturak).

Baina, Casanovaren proposamenean ez bezala, Torrek Parisen zentraltasunarekiko duen kezkan badago, zeharka, espainierazko espazio literarioan Madrilek duen zentraltasunarekiko kezka handiago bat. Hala, Torreren ustez:

Si nuestra idea prevalece, si al terminar con el dañino latinismo, hacemos a Madrid meridiano de Hispanoamérica y atraemos hacia España intereses legítimos que nos corresponden, hoy desviados, habremos dado un paso definitivo para hacer real y positivo el leal acercamiento de Hispanoamérica, de sus hombres y de sus libros (s.f. [Torre] 1927: 1).

Bitxiena da Torreren bultzadak, Casanovaren oso antzekoa denak, hain zuzen ere ukatu egiten duela aditu frantsesaren hipotesi nagusia: madrildarrak Paris ahaztu eta ahaztea nahi du, nahiz eta hiri hori gabe ezin den ulertu bere bilakaera estetikoak. Baina, batez ere, Espainiako hiriburua ez den beste hiriburu kulturalen bat sortzea saihestu nahi da, gaztelaniari lotuta, batik bat. Puntu honetan, hurbiltzea ezberdintasunik eza da. Horren harira, Torreren manifestuak *España invertibrada* lanean azaldutako behar nazionalak proiektatzen ditu kontinente amerikarrean, eta ez kosmopolitismoari buruzko hausnarketak edo espirituaren krisiarekiko alternatiba amerikarra.

Horregatik, ez da harritzekoa meridianoaren polemikari buruzko bigarren manifestuak, sinadurarik izan ez arren ziur asko Giménez Caballerok idatzirikoak, zirkulu literario amerikar batzuetan argitaratzen hasiak ziren erantzun batzuen kontra oso gogor erreakzionatzeaz gain, intelektual gisa deskalifikatu ere egiten dituela eta, besterik gabe, berbena bateko kide bihurtzen dituela – nabari da madrildartasun inplizitua–. Meridianoaren berbenan parte hartzen duten guztiek ezaugarri iberiarrena dute: pasioa. Hala, agerian jartzen da borrokek, gorputzez gorputzekoek, sortzen duten harreman estua: «enorme lazo de unión que significa una lucha. Cuerpo a cuerpo» (s.f. 1927: 1). Horrenbestez, eztabaida izango zena azpian zekarrena bihurtu zen: borroka.



Literatura borrokalaria eta borrokazkoaren egoera honetan, bistakoa da Torreren pentsamoldean badagoela literatura espainiarraren funtsaren definizio monologikoa, uniformea eta ia etnikoa; Amerikatik Espainiarekin ezar daitekeen harremana, baina ez bakarrik Amerikatik –1899an Rubén Daríok agerian jarri zituen eta eztabaida hartan alde batera utzi ezin ziren desberdintasunak egon arren—. Horrek, tazituki, kanpo utzi zituen *La Gaceta Literaria*-k hasiera batean barne hartuko zituen askotariko literaturak, baina baita espainieraz idatzitako literaturaren esparruan nahitaez ezabatu behar ziren hainbat eta hainbat kontzeptzio ere. Borroka bestetzat jotzen ez den beste batekin da.

## 2. Kataluniaren ikuspegia: Agustí Calvet «Gaziel»

Horren harira, ulertzekoa da meridianoaren eztabaidari buruz Katalunian sortutako iritziak urriak bezain garrantzitsuak izatea. Ez gara ari *La Gaceta Literaria*-n idazle katalan baten argitalpen bakarraz. Idazle hura Josep Maria de Sucre izan zen, eta 1927ko irailaren 1ean argitaratu zen eta Giménez Caballero eta Guillermo de Torre buru zituen erantzun koral modukoan, bat egin zuen iritzi kolektiboarekin, eta beste hainbati jarraitu zien: Ramón Gómez de la Serna, Benjamín Jarnés, Gerardo Diego, Ángel Sánchez Rivero, Melchor Fernández Almagro, Antonio Espina, Enrique Lafuente, Gabriel García Maroto, César M. Arconada, Francisco Ayala, Esteban Salazar eta Chapela. Sucrek aipamen txiki bat baino ez du egiten, hala moduzkoa eta gutxi arrazoitua; onartu beharra dago, hala ere, hobe dela bere oharraren hasiera («¿Conque bueyes cometas, amigos de Martín Fierro? ¿Cuándo peninsulares y transatlánticos habíamos espontáneamente convenido mostrarnos y ser *maruchos* ante el enemigo común, que es la beoacia analfabeta y mostrenca?»), Arconadaren *incipit*-a baino: «Están revueltos los aborígenes»<sup>2</sup>. Ez. Egia esan, ez ditugu *La Gaceta Literaria*-n bilatu behar Giménez Caballerok eta Guillermo de Torrek adierazi zituztenen kontrako erantzunak –katalanak edo ez—. Aldizkarian, eztabaidak panfleto-kutsua du.

Alde batetik, Katalunian, arazoak literatura espainiarrari bakarrik eragiten ziola uste zen, eta eztabaida horretan Argentinaren eta Kataluniaren arteko antzekotasuna ez zela nahikoa zuzenean esku hartu behar izateko. Baina, ikuspegi iberiarretik –edo, hobe esanda, iberistatik–, Kataluniaren esku-hartzea ezinbestekoa da, eta horregatik esku hartu zuen Agustí Calvetek.

Eztabaidaren alderdi espezifikoki iberiarrean –gogoan izan penintsulako hizkuntzen arteko elkarriketari buruzko aipamena–, Gaziel, gaztelaniaz idazten zuen kazetari bikaina, iberismoaren

---

### OHARRAK

2 | Aldizkariak «Campeonato para un meridiano intelectual» izenburupean jasotako iritziak (*La Gaceta Literaria* 17, 1927ko irailak 1, 6. or.).

---

aldeko sutsua izan zen. Berrogeita hamarreko hamarkadan, *Trilogia ibèrica* idatzi zuen, eta bere lan osoa ondare iberistarik garrantzitsuena da, Joan Maragallen heriotzaren ondotik. Baina, Calveten iberismoa ezberdin samarra da Giménez Caballerorenaren –edota Ortega y Gassetenaren– aldean, bereziki Gaztelari dagokionez. Era berean, Gaziela, gaztea zela memorietan «aquel Madrid tibetano» deitu zuen hirian bizi izan zena, zentzu guztietan Parisko ikasle\* ere izan zen, beste hainbat egile bezala, eta berak islatzen ditu ongien Parisen imantazio kulturala eta Espainiako hiriburuarekiko distantzia kulturala. Hori gorabehera, maiz zabaltzen dizkio besoak Espainiako hiriburuari, bere trebakuntza literarioaren kutsu frantsesari uko egin gabe. Hala, Gaziela Daríok Bartzelonaren, Parisen eta Madrilen artean sortutako triangeluaren bigarren unea da; triangelu birsortzailea da berau, eta, horren baitan, hiriburu katalana ezin da, besterik gabe, aldekidetzat hartu errealitate historiko eta kulturala faltsutu gabe. Hogeiko hamarkadan Madrillgo prentsaren ohiko kolaboratzaile bihurtu zen Gazielen beti izan zuen kontuan distantzia bikoitz hori.

Beste xehetasun txiki baina esanguratsu bat da Gazielen ez zuela *La Gaceta Literaria*-ren bidez parte hartu –inoiz ez zen aldizkariaren ohiko kolaboratzaile izan, testu garrantzitsuren bat argitaratu zuen arren, hain zuzen ere, «Autobiografía de un pseudónimo»–, baizik eta *El Sol* aldizkariaren bidez, izatez Urgoiti eta Ortegarena zen aldizkariaren bidez; hala ere, hogeita hamarreko hamarkadan berau Gazielen zuzendaritzapean ere izan zen, 1934an zehatzen, sozialismo eta liberalismo espainiarren barruan sortutako desadostasunen ondorioz Ortega y Gassetek proiektua utzi zuenean. Gauzak hainbeste aldatu ziren, ezen, garai hartan, *El Sol* Esquerra Republicana de Catalunya alderdiari lotutako enpresaburu eta politikari katalan batzuen baitzen (González i Vilalta 2006). 1927an Gazielen adierazi zuenez, bere zutabeak, «a pesar de ser tan estrechas, resultan, espiritualmente, las más amplias de España» (Gaziela 1927b: 1). Bestetik, *Trilogia ibèrica* idatziko zuenak inolako zalantza-izpirik gabe azaldu zuen: «la principal razón de mi presencia aquí, es la de decir cosas que no pueden verse desde Madrid mismo. Pero cosas que a veces chocan, no han de ser forzosamente malas, ni mucho menos malintencionadas» (Gaziela 1927b: 1). Hain zuzen ere, bat ez etortze hori, bai Madrilen bai Bartzelonan bertan jasotako harreraren ezaugarri, ibilbide osoan izan zuen lagun Gazielen.

Gazielen bi artikulua argitaratu zituen *El Sol* aldizkarian 1927ko udaren amaieran. Aspaldi samarretik erreparatzen zion Amerikari, oso maiz ez bazen ere, bai *El Sol* aldizkariako bai garai hartan zuzendari zuen *La Vanguardia* aldizkariako artikuluetan. Bestalde, nabarmentzekoa da *El Sol* aldizkarian argitaratu zirela, orobat, eztabaidan hain edo batere ezagunak ez ziren beste zenbaiten hitzak ere, besteak

\* *Diario de un estudiante en París* Gazielen lehenengo lanari egiten dio erreferentzia.

(Itzultz. .oh.)

beste, Luis Araquistáinenak. Urte batzuk lehenago, Araquistáinek arazo hispano-amerikarrari buruzko beste eztabaida bat bultzatu zuen, baina meridianoaren ingurukoak itzal egin zion. Komenigarria litzateke, ordea, eztabaida hura ere sakon aztertzea.

\*

Gazien lehenengo artikulak, 1927ko abuztuaren 31n argitaratutakoak eta «Singular o plural. Los meridianos de Hispanoamérica» izenekoak, bazituen jada eztabaidaren inguruko zantzuak. Bere ustez, ulergarria zen Amerikaren haserrea, eta, bereziki, *Martín Fierro* aldizkariko taldearena. Egun batzuk lehenago, *El Sol* aldizkariak erreakzio hari buruzko informazio-ohar bat argitaratu zuen, eta ohar hura hartu zuen Gaziek bere hausnarketaren abiapuntutzat. Argentinaren erreakzio gogor haren aurrean, hala galdegin zion bere buruari: «¿Dónde está la causa? Esto es lo único esencial. Si el hombre se halla fuera de sí, ¿qué lo sacó de sus casillas?» (Gaziel 1927a: 1). Gazien iritziz, sortutako tentsioa osasuntsua da, Hispanoamerikak izan behar duenaren aurrean inork jarrera epelik ez duela erakusten duelako, nahiz eta bere konplexutasunaz benetan jabetuta aztertu beharreko gaia izan daitekeen. Konplexutasuna, hain zuzen ere, ikuspegian dago:

*La Gaceta Literaria*, que como todos sabemos se publica en Madrid, lanzó a los cuatro vientos, con su juvenil desembarazo, el siguiente apotegma: «Madrid, meridiano intelectual de Hispanoamérica» ¡Y ya estuvo prendida la mecha! Porque si en la puerta del Sol y hasta en toda la inmensidad de las anchas Castillas y sus tierras de inmediato dominio espiritual, esa sentencia parece la cosa más clara y natural del mundo, en otras partes, no ya del vastísimo sistema hispanoamericano, sino de España misma, produce un efecto equívoco e inquietante, generador de una irreprimible reacción, cuyas vibraciones pueden ir desde la benévola sonrisa de tolerancia hasta el estallido de furiosa protesta (Gaziel 1927a: 1).

Artikulu-idazle katalanaren ustez, batzuen sentikortasunak eta besteen oharkabetasunak eraginda, gatazka piztu zen. Gatazka hartan amerikarrek –haien artean, *Martín Fierro* aldizkariko taldea hartu zuen benetako bolborategizat– erantzunaren indarraren bidez erakusten zuten beren ahulezia, eta madrildarrek, berriz, handi izateko itxaropenetan Amerika zen guztia txikiagotzeko Espainiaren joera, baita esfera txikiagotzekoa ere –hispanoamerikarra edo mundukoa–; horrek Espainia bera txikiagotzen zuen, aldarrikatzen zuten neurritz kanpoko handitasunarekin alderatuta. Har dezagun, adibidez, *Mundial* aldizkaria. Bertan, César Vallejok Europar barrena idatzitako kronika ugari, bereziki Parisen egindakoak, argitaratu zituen 1925etik aurrera. Horrek garbi uzten du Guillermo de Torre erredakzioko idazkari izan zuen aurreko aldizkaria, *Cosmópolis*, ez zela espainieraz idatzitako salbuespena. *La Gaceta Literaria* aldizkariak proposatutakoa, alderdi askotan, atzerapausoa zen

hogeiko hamarkadako *Weltliteratur* delakoaren testuinguru zabalean espainierazko literaturak zuen tokiari buruzko eztabaidetarako.

Hain zuzen ere, Gazielek esan zuen ikuspegiak txikiagotze bikoitza dakarrela; eta, puntu honetan, geografikoki birbideratu zuen gaia:

Lo de menos es la manera como, ante la afirmación de que Madrid sea el meridiano intelectual de Hispanoamérica, ha reaccionado Buenos Aires, o una parte de Buenos Aires. Lo saludable es advertir que si se ofreciese la ocasión reaccionarían lo mismo (no en la forma ni en el fondo, sino en sentido de franca disconformidad), no solamente una parte de Montevideo, Santiago de Chile, Méjico, Bogotá, Caracas y Ríojaneiro, sino también Lisboa, Barcelona, Santiago de Galicia y Bilbao. Asignar a Madrid exclusivamente la función de meridiano intelectual de toda Hispanoamérica o Iberoamérica, una de dos: o es exagerar muchísimo la importancia, indudable o muy grande, que el meridiano de Madrid ha de tener en el conjunto de una armoniosa esfera, o es empequeñecer más todavía la grandeza de ésta (Gaziel 1927a: 1).

Torreren manifestuko unitarismoa «apoteigma» da Gazielentzat, baina, aldi berean, «ezaguna eta kalterik egiten ez duena»; era berean, ez zetorren inola ere bat denboraren poderioz dagoeneko argitu den errealitatearekin:

Un sistema de cultura hispano o iberoamericano, en el cual Madrid ejerciese, de una manera absorbente y exclusiva, el papel de meridiano único, se parecería demasiado al sistema político imperial, centralista y absolutista, que tuvo su cabeza en Madrid, para que pudiese aspirar nunca a ser una verdadera representación global de la cultura de Hispano o Iberoamérica. Esto aparte de que semejantes absorciones, en el orden intelectual, son tan vanas si las proclama el propio interesado como inútiles cuando se intentan por Real Decreto. París, por ejemplo, no ha aspirado a hacer pasar oficialmente por su cerebro y por su corazón el meridiano de los pueblos hispanoamericanos. Y, sin embargo, si hoy hubiésemos de designar, a pesar nuestro, el que rige el horario intelectual y sentimental; si a ellos mismos les preguntamos cuál es, de hecho el que regula sus días, ¿qué habríamos de confesar, qué nos contestarían?... Estas cosas han de hacerse, mejor que decirse (Gaziel 1927a: 1).

Ikus daitekeenez, kazetari katalanaren argudioak ez zetozen bat ez *La Gaceta Literaria*-ren proposamenarekin ez *Martín Fierro*-ren argudioekin, eta beste fronte bat zabaldu zuten. Horrez gain, amaiera eman zioten Espainiako historiaren eta eremu espainolduneko aukera intelektualen aldi bati. Gazielen hitzetan, eremu horren etorkizuneko adierazgarria aniztasuna izango zen.

O Hispanoamérica no será nunca nada, o cuando esa inmensa esfera espiritual esté montada sobre una base sólida como un diamante, no sobre papel nada más, o en las nubes, como ahora, [...] no tendrá un meridiano, sino varios, como la Tierra misma, que regularán sobre ella el diverso y admirable juego de las luces y las sombras, con sus cambiantes matices. Tienen razón los argentinos en decir que uno de esos meridianos es Buenos Aires. También los portugueses podrían añadir que hay otro en Lisboa, y los catalanes que el suyo es Barcelona.

No sabemos todavía si podremos acordarlos todos en el futuro. Pero lo indudable es que cuanto de ello se aparte es pasado, irremediabilmente idio para siempre jamás (Gaziel 1927a: 1).

Alabaina, hori gertatuko bazen, Espainian esparru literario, intelektual, politiko eta akademikoko eragileek gai izan behar zuten onartzeko inoiz ez zela izango garai batean izan zena, eta gai horren inguruan Amerikari pribilegioak eskatzeak ispilu ganbil eta ahurrez beteriko kale itsu batera zeramala, ezinbestean.

Amaitzeko, Gazielek, meridiano posible guztiek zeharkatzen duten eremua edukiz hornitzeari lehentasuna emanaz, oinarrizko galdera bat egin zuen: «De esos meridianos, ¿cuál será el más brillante y famoso?» (Gaziel 1927b: 1). Hispanoamerikari edo Iberoamerikari dagokionez, galderak badu dimentsio bat; Iberiar penintsulari dagokionez, ordea, askoz ere ondorio gehiago ditu. Har al ditzake Espainiak espainierazko bi meridiano intelektual?

\*

Horrelako zerbait pentsatuko zuen Ricardo Baezak, eztabaidari buruz geroago idatzi ziren artikuluetako bat sinatu baitzuen irailaren 3an *El Sol* aldizkarian. Esplizituki desbideratu zituen, une batez bakarrik bada ere, hausnarketaren geografiak eta egun batzuk lehenago argitaratutako orriko zenbait alderdi nabarmendu zituen, Gazielek jasotako tokien zerrendari lotuta. «¿Con Martín Fierro o con Don Quijote?» artikuluan, Baezak, *Prometeo* aldizkariaren itzultzaile nagusiak –1890ean Kuban jaio arren ibilbide osoa Madrilan egin zuenak– hau adierazi zuen, Agustí Calveten hitzak hizpide:

«Una parte de Montevideo, Santiago de Chile, Méjico, Ríojaneiro, etc., (esto es, el resto de la América latina), sino también Lisboa, Barcelona, Santiago de Galicia y Bilbao» [...] no se advierten claramente las razones de disconformidad que podrían asistir a Santiago de Galicia y Bilbao, que seguramente no incluyen en su ideario regionalista la separación del resto de España en punto a disciplinas intelectuales, y la superioridad de la literatura gallega y éuscara, respectivamente, sobre la castellana. Probablemente, convendría limitar esa reacción de disconformidad a Barcelona, y quizá no fuera de exagerada suspicacia atribuir la implícita protesta del inteligente cronista a la condición de catalanidad (Baeza 1927: 1).

Ricardo Baezaren erreakzioak agerian jartzen ditu Iberiar penintsulan aukerei buruz zeuden pertzepzio-asimetriak. Artikulu-idazlearen ustez, hau da eztabaidari buruz esan beharreko lehenengo gauza; areago, eztabaidako alderdi honen inguruan bakarrik ageri da zorrotz: Espainian ez dago meridianoei edo paraleloei buruzko eztabaida posiblearik. Calvetentzat, Bartzelonak bere burua meridiano intelektual gisa aurkeztea –baita gaztelaniazko literaturarako ere– ebidentzia da; Baezarentzat, berriz, ia probokazioa.

---

*La Gaceta Literaria* aldizkarian argitaratutako erantzunen idazleek ohi zutena baino arreta eskasagoz jokatu, Baezak xehetasun ugari eman zituen Amerika eta amerikarrak zer ziren azaltzean:

Ellos serían los primeros en rechazar indignados el supuesto de su descendencia de aquellos pobres indios degenerados que constituían la raza aborigen. «Autóctonos, puede ser; italianos, también; franceses, siempre; españoles, nunca!» reclaman en un arrebatado de hispanofobia. Pero, ¡qué se le va a hacer! Autóctonos, es precisamente lo que no pueden ser; si muchos son italianos, y franceses unos pocos, la mayoría, quiéranlo o no, españoles de sangre son (y hasta españolísimos en esto de hablar mal de la propia casta) y españoles seguirán siéndolo (Baeza 1927: 1).

Alde batetik, *Martín Fierro* aldizkariko taldearen erantzunei buruz mintzatzean, nolabaiteko determinismo nazional aurrerenaniarra antzeman daiteke; horren baitan, borondate politikoak, nazio moderno orok osatzen duen eguneroko plebisztuan adierazitakoak, ezin du ezer egin odolaren aurka. Bestalde, harritzekoa da nola mugatzen duen idazle amerikarrek duten frantses izatearen pertzepzioa migrazio-mugimenduen demografiara (kasu honetan ez baitira oso esanguratsuak); izan ere, haiek lotura kulturalaz ari dira, idazle bakoitzak bere garaiko adierazpide- eta sormen-aukeren aurrean bere buruarekin egunero egiten duen plebisztuaren emaitzaz. Amaitzeko, nabarmentzekoa da kolonien kontua, ez baita gaia hor bukatzen, Hispanoamerika Espainia inperialaren sinonimo gisa hartzen duen definizioaren erdian kokatu ohi baita, berrespenik behar izan gabe.

Horregatik, irailaren 13an «Imperio o confederación» izenburupean argitaratu zen Gazielen erantzunak agerian jarri zuen zein zen *La Gaceta Literaria* aldizkariak eta bere zirkuluak zerabilzaten argudioen azpiko inperio-ideia, eta beste irtenbide bat proposatu zuen, epe motz, ertain eta luzera baliagarria, orduan Atlantikoaren bi aldeetan nekez jasan zitezkeen gatazkak konpontzeko. Horrenbestez, inperialismo-ideiaren inguruko hausnarketa askoz ere egokiagoa izango litzateke meridianoaren eztabaidaren planteamenduak iradokitzen edo, hobe esanda, inposatzen zuenaren moduko egoeran; baina, nola ez, zenbait xehetasun kontuan hartuta:

Si yo sostengo, por ejemplo, que a mi juicio la actuación imperial de Castilla ha terminado para siempre, tanto política como culturalmente, no es porque crea que a Castilla no le queda otro porvenir que su entierro, sino todo lo contrario: porque, a mi ver, los que van camino directo de entregarla son aquellos que se empeñan en perpetuar de Castilla una modalidad caduca, impidiendo que su inmortal espíritu, dejando de estar encadenado a un pretérito que no volverá nunca, se adapte a las realidades presentes y se lance rejuvenecido hacia el porvenir. Nunca más Castilla podrá volver a ser, respecto de la España y de la Hispanoamérica futuras, lo que fue para las pasadas. [...] La acción

imperial de Castilla, tanto dentro de España como de Hispanoamérica, ha terminado. Pero su acción confederada, la inmensa energía que es capaz de desarrollar en ese sentido nuevo y positivo, todavía está intacta (Gaziel 1927b: 1).

Nabarmentzekoa da Gazielek bi ikuspegitatik interpretatu izana meridianoaren tesiak: espainiarra eta hispanoamerikarra. Halaxe egin zuen, argi eta garbi, lehenengo artikuluan, baina esplizituegia izan gabe. Baezaren erreakzioa zela eta, ikuspegi bikoitza zer neurritan den ezinbestekoa argitu behar izan zuen. Azken finean, tazituki erantzun zien Ortegaren planteamenduei, alegia, Gaztela indartsua izateko beharrari eta Espainia intelektualki antolatzeko ikuspegi bakarra Gaztela zela onartu beharrari. Kontua ez zen pentsatzea Gaztelak egin eta desegin bazuen Espainia, Gaztelak berak berregin behar zuelako ideiaaren alternatiba proposatu behar zuenik. Gazielek ez zuen halakorik esan; alderantziz, Gaztelak beste bide bat bila zezan saiatu zen, berritze-bideari ekiteko iragan dirdiratsu baina bizigabea aipatu beharrik izan gabe.

Gaziel, empordarra izanagatik Cambóren ingurukoa, gehiago kezkatzen zuten bereizleek separatistek baino, eta meridianoaren eztabaidan garbi identifikatu zuen binomio hori:

Tanto Martín Fierro como Don Quijote, en el fondo, aunque por modos distintos, son dos solemnes separatistas. Si el primero puso en práctica el separatismo, fue el segundo quien lo engendró previamente (Gaziel 1927b: 1).

Calveten ustez, Martín Fierro eta Don Quijote aukeran jarrita, Baezak dilema faltsua eskaintzen zuen, eta honela argitu zuen:

¡Ni con uno, ni con otro! Si Martín Fierro peca de localismo, Don Quijote peca de intolerancia. El primero está demasiado sujeto a la pampa; pero el segundo está incapacitado para reconocer que en el mundo hay otras Dulcineas, y, por lo tanto, otros amores tan santos como el suyo propio. A Hispanoamérica no le conviene ningún símbolo que descarte, con su sola presencia, los símbolos complementarios. Los Estados Unidos de América no pusieron en su bandera una sola estrella enorme que absorbiese todas las luces del firmamento federado, sino una multitud de estrellitas distintas y diáfanos (Gaziel 1927b: 1).

Alabaina, puntu honetan oso kontuan izan behar da “inperio” hitza ez dela ez anakronikoa ez ustekabekoa; alderantziz baizik. Gazielen berehalako erreferentea ez zen Giménez Caballeroren zirkuitu inperiala, baizik eta Noucentismearen hasieran Eugeni d’Ors «Xènius»-ek sustatu zuen inperialismoaren ideia. Hala ere, Xèniusen pentsamoldetik sortutako ideiak guztiz garatu zituen Francesc Cambó Espainiako politikan izandako zuzeneko interbentzionismoak. Urte haietan, Cambó *Per la concòrdia* idazten ari zen; liburua 1930ean argitaratu zen, bai katalanez bai gaztelaniaz, eta hura oinarritzat hartuta egin zuen Giménez Caballerok Kataluniaren inguruko

---

hausnarketa. Ucelay da Calek hain justu ere adierazi bezala (2003: 828-871), Giménez Caballerok Primo de Riveraren diktadura-aldiko urteetan abiarazi zituen ekimen guztiak Cambóren proposamen hori aurkezteko prestaketa-lan zalapartatsutzat har daitezke, nahiz eta haien ondorioak ez ziren inola ere izan bultzatzaileak hasieran aurreikusitakoak. Bestalde, Giménez Caballeroren aburuz inperioaren ideiak zerikusi handiagoa zuen Erromara begiratzearekin, han eredu faxista baitzen nagusi eta hori oso lagungarria baitzaigu, hein handi batean, Gecéren abangoardismoa eta, orobat, Orsen beraren bilakaera ulertzeko. Hala, 1936an *El imperio en España* argitaratu zen, izenik gabe, eta 1941ean berrargitaratu, Bartzelonan emandako zenbait hitzaldi gehitu ondoren eta Antonio Tovar egileak berak sinatuta. Logikoa ere bazen, hausnarketa horiek guztiak ez baitziren hutsean egiten, salbuespenezko xehetasun gisa; aitzitik, Joan Ramon Resinak hainbat dokumentu eta iruzkinetan jaso bezala, espainieraren hedapen geografiko eta demografikoa kapitalizatzerantz bideratutako benetako estrategia akademiko eta politikoaren parte dira. Estrategia hori unibertsaltasun-mordoilo artifizialez apainduta zetorren eta, horren bidez, frankismoak posizio hegemonikoa izango zuen kolonia ondoko garaian, berrogeiko eta berrogeita hamarreko hamarkadetan, baina baita hizkuntza- eta kultura-potentzia kapital sinboliko metatu gisa erabiltzeko aukera ere, gerra ondoko Europaren mendebaldeko potentzien artean bitarteko gisa aritzeko edo, gutxienez, horien artean egoteko. Kapital sinboliko metatuak barne hartzen zituen argitalpenak, biltzarrak, eztabaidak, azterlan filologiko eta historikoak, guztiak ere gobernu frankistak diru askoz lagundutakoak eta, gehienetan, liberalismo katolikoak indartutako jarrera ekumenikoa zutenak. Kapital horrek, gainera, 1898an galdutako agindupeko lurren zati bat berreskuratzeko lagungarria izango zen. Aldiz, «el Hispanismo surgió en el siglo XIX junto a las filologías nacionales como una estrategia de compensación de la colosal pérdida de los territorios de América» (Resina 2009: 205). Beren burua 98ko belaunaldiaren bilobatzat hartzea ez da txantxa.

Kontuan izanik inperioaren ideien bi definizio edo pertzepzioek –Orsenak eta *La Gaceta Literaria* aldizkarikoak– komunean gauza asko zituztela, baina beste askok bateragaitz egiten zituztela, Agustí Calvetek hirugarren bide bat bilatu zuen; –horrek, hein batean, mende-hasierako Orsen alternatibari jarraitzen dio, alternatibaren ondorengo garapenei baino–:

No es como imperio —y en este punto radicó el involuntario error de *La Gaceta Literaria*— como Castilla ha de considerar en adelante, a mi juicio, la admirable y diversa extensión intelectual de Hispanoamérica, en la que deben siempre incluirse, porque son partes suyas espirituales, Portugal y Brasil. No es como imperio, sino como confederación. Confederación imperial, si se quiere, pero cuyo imperialismo no consiste en la sumisión del todo a la voluntad de una parte, sino en la de cada una de las partes, por importantes que sean, a la armonía del todo (*Gaziel*



1927b: 1).

Dilema faltsuaren aurrean, Gazielek beste irtenbide baten alde egin zuen: Iberiar penintsula osoa eta Hispanoamerika osoa konfederatzearen alde.

\*

Horrela, apustu federala izango zen, hain zuzen ere, nagusi hedabide katalanetan eztabaidari buruz egindako esku-hartzeetan –edo, hobe esanda, hausnarketetan–. Irailaren 6an, Gaziela zuzendarikide zuen *La Vanguardia* aldizkarian Eduardo Gómez Baquero «Andrenio»-ren «La disputa del Meridiano» artikulua agertu zen, eta hori hartu zuen oinarritzat, hein batean, Gazielek berak. Andreniok artikuluan zioenez, «el hispanismo tiende a constituir un cuerpo moral, una confederación espiritual entre los pueblos de habla hispana. (Una confederación política, en el estado actual, es quimérica)» (Andrenio 1927: 3). Bestalde, Joaquín García Monge San Josén (Costa Rica) argitaratzen zuen *Repertorio Americano* aldizkarian Josep Pijoanek ohar labur bat plazaratu zuen 1928ko otsailaren 18an. Eztabaidari amaiera eman nahian, hala jaso zuen oharrean: «esta discusión del meridiano ha sido ridícula». Eta zera gehitu zuen, penintsulan aipatzen ziren argudioetan oinarrituta: «Madrid no es meridiano para Barcelona, ni para Lisboa, ni casi para Sevilla». Gertakarien askotariko bilakaera ikusita, Pijoanek –garai hartan Kalifornian irakasle zenak– hau aipatu zuen:

La juventud de América tiene hoy la dicha de vivir en una época de renovación. Hay tiempos en que no hay nada que hacer. Pero casi cada tres generaciones hay que dar un salto. Y claro, es arriesgado. Un salto hacia el porvenir [...]. Y el mañana, si no del 1950, por lo menos el de 2000, es Federación de todas las naciones de América (Pijoan 1928: 99).

Beharbada dilema hain faltsua ez zelako ez zion Guillermo de Torrek garai hartan erantzun katalanismo moderatuak –oso moderatuak, Ricardo Baezari kontrakoa iruditu arren– eta lekualdatuak –Agustí Calvetek Madrildik; Josep Pijoanek Amerikatik– proposatutako irtenbideari, ezta Andrenioren heterodoxiari ere –hura ere Bartzelonako aldizkari nagusietara lekualdatua–. Orduan proposamen haietako batek berak ere ez zuen inolako oihartzunik izan Torreren argudioetan.

### 3. Azken hitza: 50eko hamarkada

Ondorengo gertakariak ikusita, katalanek ideia federala edo konfederala behin eta berriz aipatzeak ez luke garrantzi handirik izango, Pijoanek aurreikusitako garairako, hots, berrogeita hamarreko

---

hamarkadarako, behin betiko Amerikara joana zen Guillermo de Torrek 1927ko argudioak eguneratu izan ez balitu eta ñabardura politiko garrantzitsu hori bera literatura hispanoamerikarreko proposamenean txertatu izan ez balu; honela adierazi zuen, kategorikoki: «quizá la única vía posible no sea otra que la de una Hispanoamérica federal». Liburu labur baina garrantzitsuan agertu zen, alegia, *Claves de literatura hispanoamericana* delakoan, eta, hortik abiatuta, 1958an Chapel Hill-en (University of North Carolina) Association Internationale de Littérature Comparée / International Comparative Literature Association elkartearen nazioarteko bigarren biltzarrean Torrek «Diálogo de literaturas» izenburu esanguratsuko hitzaldia eman zuen. Orduan, aurretik *España invertebrada* liburuan gertatu bezala, elkarrizketa bere ustez uharteen sezesionismotzat duenaren zuzengarri gisa proposatzen zen –federazio amerikar posible horri dagokionez– eta, Salvador de Madariagari jarraiki, hau gehitu zuen: «Si en otros órdenes tal supuesto parecerá –hasta el mismo momento en que se realice– una utopía, en el plano intelectual tal federación es lo único que puede quebrar distancias e ignorancias, favorecer conocimientos y aproximaciones» (1959b: 53). Wladimir Weidléri jarraiki, iragarrita zegoen une hartara iritsita, jarrera kantiarragoa hartu zuen Europako literaturen aurrean, *Weltliteratur* delakoari dagokionez (Torre 1949); Torrek, ordea, federalismo literarioak dakarrenaren zati bat baino ez zuen erakusten.

Guillermo de Torrek ez zuen, liburu osoan zehar, Gazielek esandakoa jaso bere proposamen federalaren aurrekarietan, sezesionismo katalana ez baitzen, itxuraz, jada kontuan hartu beharrekoa (*España invertebrada* liburuan, ordea, ezinbestekoa zen). Horixe ondorioztatzen da, behintzat, argi eta garbi, Menéndez Pelayori buruzko bere liburuan gai horri eskaini zion orritik. Ikus daitekeenez, Torrek ez zion inolako jaramonik egin auziari, Ortega tazituki aipatzeak garrantzitsua dela agerian utzi arren: «En España todo está dividido. Desde las regiones hasta los estamentos profesionales. El particularismo local rebasa el área permisible de los fueros políticos y adquiere violencias suicidas» (Torre 1943: 87). Alabaina, Torrek *España invertebrada* lanaren hirugarren kapitulua berriz hausnartu nahi duela dirudien arren, oin-oharrean Jumillako (Murtzia) kantonalismoa baino ez zuen aipatu espiritu separatista suizidatzen zuen horren adibide gisa (Torre 1943: 87n). Egiazki, Ortega y Gassetek hautemandako antolaketa-faltaren ondoriozko arazoak bat zetozen orduko errealitatearekin, eta Torreren parodiako erreduktionismoak ezer gutxirako balio du.

Espainiako barne-aniztasuna desagerrarazi ondoren (bertan, beharbada, bat egin ahal izango zukeen, adibidez, Gazielekin), Guillermo de Torrek penintsulatik kanpoko aniztasuna antolatzeari ekin zion, eta, berriz ere, alde batera utzi zituen hainbat egile, besteak beste Agustí Calvet bera; argudio guztiei eusteko, literatura

---

amerikarren espezifikotasuna alderatzen jarraitu zuen, hain zuzen ere, eskualdeko eszisionismoarekin, alderdi lokal, nazional eta indigenistarekin, lotzen duen zuen espezifikotasuna. Guillermo de Torrek inoiz ez zuen alde batera uzten bere kritika literarioaren alderdi politikoa, politizismo deitzen zuen horretatik bereizi nahi izan arren. Bai meridianoaren eztabaidan bai Hispanoamerikarako adierazpen konparatistetan, Guillermo de Torrerentzat espainiarrak lehentasuna zuen amerikarrarekiko, unibertsaltasunetik abiatzen zela esan arren, eta salbuespen gutxi batzuk baino ez zituen egiten, interesen bat zuelako-edo, horien artean, proposamen federatiboa; horrek, ordea, ez ditu indargabetzen meridianoaren bere teoria eta berorren lehentasun inplizituak, lehentasun gisa aldarrikatuak, eta ez nagusitasun sinboliko tazitu gisa.

Torre ez zen nazioz gaindiko kritikaria edo kritikari postnazionala, hala esan izan den arren; Torre «Espainiaz haraindikoa» zela esan genezake, Miguel de Unamunok aipatu zuen «Gaztelaz haraindiko gaztelaniaren» harira (hainbat orri eskaini zizkion Torrek haren monologoa argitzeari) (Torre 1958: 10). Torrek maiz aipatzen zuen hori hizkuntzaren batasunari dagokionez, eta oso garrantzitsua da literatura hispaniarrak batu eta kultura hispaniarra penintsulatik kontrolatu eta antolatzearen ideian. Dena dela, Torrek ez zuen beste irtenbiderik, eta ikuspegia (geografikoa) aldatu zuela onartu zuen: «el lugar desde donde imaginamos el encuentro [...] no es ningún espacio interplanetario; tiene una demarcación concreta y se halla situado en una ciudad de América del Sur, en Buenos Aires» (1959: 87). Federalismoaren kasuan bezalaxe, Buenos Aires elkargunetzat hartzeko adierazpena berandu zetorren, artifizial-itxura zuen eta luzaroan ukatutako ebidentziek behartuta egin zela dirudi; ebidentziak onartu direnerako, beranduegi da eta azken hitza izateko onartu dira, etsipenez, baina, aldi berean, harrokeriaz. Bestela esanda: arrazoa zuen Giménez Caballero Guillermo de Torre «Menéndez Pelayo del Vanguardismo» izendatzean (Giménez Caballero 1981: 68); beharbada ez zen, ordea, haren erudizio zabalari buruz bakarrik ari. Egiazki, bidaia honetarako ez zegoen karabela horien beharrik; Manzanares ibaia ez da nabigagarria.

# Bibliografía

## Fuentes

- ANDRENIO (Eduardo Gómez Baquero) (1927): «La disputa del meridiano», *La Vanguardia*, 6 de septiembre de 1927, 7.
- BAEZA, R. (1927): «Marginalia. ¿Con Martín Fierro o con Don Quijote», *El Sol*, 3 de septiembre de 1927, 1.
- GAZIEL (Agustí Calvet) (1927a): «¿Singular o plural? Los meridianos de Hispanoamérica», *El Sol*, Madrid, 31 de agosto de 1927, 1.
- GAZIEL (Agustí Calvet) (1927b): «Hispanoamérica. ¿Imperio o Confederación?», *El Sol*, Madrid, 13 de septiembre de 1927, 1.
- PIJOAN, J. (1928): «España está quieta, Uds. Marchan», *Repertorio Americano*, 7, 18 de febrero de 1928, 98-99.
- S.f. (Guillermo de Torre) (1927): «Madrid, meridiano intelectual de Hispanoamérica», *La Gaceta Literaria*, año I, n. 6, 15 de abril de 1927, 1 (portada).
- S.f. (1927): «La verbena del meridiano», *La Gaceta Literaria*, año I, 18, 15 de septiembre de 1927, 1.
- TORRE, G. de (1943): *Menéndez Pelayo y las dos Españas*, Buenos Aires: Publicaciones del Patronato Hispano-argentino de cultura.
- TORRE, G. de (1949): «Goethe y la "literatura universal"» *Realidad*, vol. VI, n. 17-18.
- TORRE, G. de (1958): «Unamuno y la literatura hispanoamericana», *Cuadernos del Congreso para la Libertad de la Cultura*, n. 30, 3-12. (publicado también en *Cuadernos de la Cátedra Miguel de Unamuno*, 11, 1961, 5-25; y en *La Torre*, vol. IX, 1961, 537-562).
- TORRE, G. de (1959a): «Diálogo de literaturas» en Werner P., F. (ed.), *Comparative Literature. Proceedings of the Second Congress of the I.C.L.A.*, Chapel Hill: University of North Carolina Press, vol. I, 79-88.
- TORRE, G. de (1959b): *Claves de literatura hispanoamericana*, Madrid: Taurus.
- TORRE, G. de (1963): «La difícil universalidad de la literatura española» en Pierce, F. y Jones, C. (eds.), *Actas del Primer Congreso Internacional de Hispanistas*, Oxford: Delphin Books; *id.*: *Cuadernos del Congreso para la Libertad de la Cultura*, París, n. 74; octubre, 1963, 41-50; *id. ibid.*: *La difícil universalidad española*, Madrid: Gredos, 1965, 161-176.
- TORRE, G. de (1968): *El espejo y el camino*, Madrid: Editorial Prensa Española.
- VV.AA. (1927): «Campeonato para un meridiano intelectual», *La Gaceta Literaria* 17, 1 de septiembre de 1927, 6.

## Referencias

- ALEMANY BAY, C. (1998): *La polémica de meridiano intelectual de hispanoamérica (1927) estudio y textos*, Alicante: Universitat d'Alacant.
- BARCHINO PÉREZ, M. (1993): «La polémica del meridiano intelectual de Hispanoamérica», *Tema y variaciones de literatura*, 2, 93-115.
- DOMÍNGUEZ, C. (2012): «Literatura mundial en/desde el castellano», *Ínsula*, 787-788, julio-agosto, 2-6.
- CASANOVA, P. (2001 [1999]): *La República mundial de las Letras*, Zulaika, J. (trad. cast.), Barcelona: Anagrama. [*La République mondiale des Lettres*, París: Seuil, 1999.]
- CASANOVA, P. (2011): «La Guerre de l'ancienneté» en Casanova, P. (dir.): *Des littératures combattives. L'international des nationalismes littéraires*, París: Raisons d'Agir.
- CAMBO, F. (1987): *Memorias*, Cambó, H. (trad. cast.), Madrid: Alianza.
- FALCÓN, A. (2010): «El idioma de los libros: antecedentes y proyecciones de la polémica "Madrid, meridiano 'editorial' de Hispanoamérica"», *Iberoamericana*, X, n. 37, 39-58.
- GIMÉNEZ CABALLERO, E. (1981): *Memorias de un dictador*, Barcelona: Planeta.
- GONZÁLEZ BOIXO, J. C. (1988): «El meridiano intelectual de Hispanoamérica»: polémica suscitada en 1927 por la *Gaceta Literaria*, *Cuadernos Hispanoamericanos*, n. 459, 166-171.
- GONZÁLEZ I VILALTA, A. (2006): «"Gaziel" y *El Sol*, un proyecto periodístico imposible (diciembre 1934-enero 1935)», *Cuadernos de Historia Contemporánea*, vol. 28, 243-253.
- LLANAS, M. (1998): «Gaziel». *Vida, periodisme i literatura*, Barcelona: PAM.
- MARTÍ MONTERDE, A. (2014): «Rubén Darío y la Cataluña contemporánea», *Iberorromania*, 80, (en prensa).
- MANZONI, C. (1996): «La polémica del meridiano intelectual», *Estudios. Revista de Investigaciones Literarias*, año 4, n. 7, 121-132.
- MOSQUERA, R. (1996): «Presència catalana en "La Gaceta Literaria" (1927-1932)», *Randa*, 38, 43-98.
- RÓDENAS DE MOYA, D. (2013): «Guillermo de Torre o la ética de la crítica literaria» en Torre, G. de, *De la aventura al orden*, Ródenas de Moya, R. (selecc. y prólogo), Madrid: Fundación Banco de Santander, IX-LXXII.
- RESINA, J. R. (2009): *Del Hispanismo a los estudios ibéricos*, Madrid, Biblioteca Nueva.
- SELVA, E. (2000): *Ernesto Giménez Caballero. Entre la vanguardia y el fascismo*, Valencia: Pre-Textos.
- UCELAY-DA CAL, E. (2003): *El imperialismo catalán. Prat de la Riba, Cambó y la conquista moral de España*, Barcelona: Edhasa.
- ZULETA, E. de (1962): *Guillermo de Torre*, Buenos Aires: Ediciones Culturales Argentinas.
- ZULETA, E. de (1989): «El autoexilio de Guillermo de Torre», *Cuadernos hispanoamericanos*, n. 473-474, 121-134.
- ZULETA, E. de (1999): *Españoles en la Argentina. El exilio literario de 1936*, Buenos Aires: Atril.